

2010 Laranja Saria-Extremadurako Junta

2010/06/15

Joan den maiatzaren 27an, Extremadurako Juntako lehendakariak Ekintzailetza Sustatzeko Praktika Onen Laranja saria eman zion Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradu taldeari, "ikasleen lidergo gaitasuna esperimintatzeko, ekiteko eta garatzeko espazio irekia eskaintzegtatik, enpresa berritzaileak martxan jartzeko talde ekintzaileak sortzeko".

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua Europan berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arloan ofizialki aitortutako unibertsitate gradu bakarra da, eta sariak Fakultateak gradu horretan lortu duen beste errekonozimendu bat esan nahi du.

Argazkian ikus daiteke Mikel Mesonero, Fakultateko koordinatzaile akademikoa, eta Sari Veripaa, Enpresagintza Fakultateko taldeko kidea, Extremadurako Juntako lehendakariaren eskutik saria jasotzen.

